

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Street Beast proiektuaren funtzioamentu egokirako eta arrakasta izateko hurrengo baliabideak beharrezkotzat identifikatu ditugu:

• Baliabide intelektualak

Bezeroen eta hornitzaileen datu-baseak aipagarri dira atal honetan. Bertan beraiei buruzko informazio erabilgarri eta interesagarria bilduko dugu.

Gure enpresaren gakoa da lantaldea bezala oso motibatuta gaudela eta konfiantza handia dugula proiektu honetan.

• Giza baliabideak

Bost ekintzailek osatzen dugu proiektu hau:


- **Kerman** arduratuko da enpresen produktuen edo zerbitzuen salmenta-planak planifikatzeaz eta zuzentzeaz, ezarritako helburuak lortzeko. Gainera, salmenta-taldearen merkataritza-lana koordinatu, gidatu eta gainbegiratzeaz arduratuko da.

- **Gabriel** arduratuko da merkatuari, publizitateari, salmentari, banaketari, kostuei eta saldu ondoko zerbitzuari buruzko azterlanak antolatzen. Gainera txostenak idatziko ditu eta produktuen eta zerbitzuen epe luzerako plangintza estrategikoa egingo du.

- **Josu** enpresaren ekoizpena zuzendu, planifikatu eta koordinatzeaz arduratuko da, eta erakundeak ematen dizkion baliabideak modu orekatuan kudeatuko ditu, beharrezko kalitate-mailak bermatzeko.

- **Anderrek** kudeaketa ekonomiko eta enpresaren diru kontuak eramango ditu, enpresaren arlo ekonomiko batez ere.

- **Hodei** enpresa baten produktuak edo zerbitzuak diseinatzeko, komunikatzeko eta praktikan jartzeko prozesua bideratzeaz arduratuko egingo da, eta markaren estrategiari eta koherentziari eusten diola ziurtatzen du, bai ikusmenari dagokionez, bai edukiari dagokionez.



- **Finantza-baliabideak:**

Negozioa martxan jartzeko orduan inbertsio handia egin beharko dugu produktuak erosteko. Horretarako funtsezkoa dugu banketxeari eskatuko diogun 40.000€ko mailegua ahalik eta baldintza egokienetan lortzea.